

## MARGOKETA ABSTRAKTOA: KOLORE ETA ABSTRAKZIOA

### Jarduera

Beste era batera margotzeko eta adierazteko prozesua esperimendatzeko ikastaroa.

### Deskribapena

Pintura abstraktuan objektua eta irudia erabat desagertzen dira, eta margoa lerroen, koloreen, orbanen eta abarren bidez osatzen da. Ikastaro honen helburua da, batetik, pintura abstraktua zer den azaltzea eta, bestetik, ezagutza hori praktikara eramatea. Horregatik, abstrakzioaren aitzindari izan zen Vasili Kandinskyren obran zentratu daitekeen zati teoriko bat du. Zati praktikoa ikaslearen lana da, eta oso garrantzitsua izango da behar bezala orientatzea, uste duen abstrakzioak zentzu eta mezu koherentea izan dezan bere adierazpen-premiekin.

### Helburuak

- Abstrakzioaren eta kolorearen bidez ikasleak adierazpen-bide berri bat ireki dezan lortzea.
- Arte abstraktuari buruzko ezagutzak transmititzea, arte mota horri buruz dagoen estereotipoa hausteko eta ikuspuntu sakonagoa eta serioagoa izateko.
- Ikaslea gidatzea pintura mota horren bidez bere adierazpen-bidea aurkitu dezan.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.

### Programa

#### 1.Hiruhilekoa

- Hurbilketa teorikoa.
- Kolorearen teoriara sarrera eta garapena.
- Etab.
- Etab.

#### 2.Hiruhilekoa

- Teknika ezberdinak ezagutu.
- Keinuen garrantzia.
- Material ezberdinak.
- Etab.

#### 3.Hiruhilekoa

- Konposizioaren oinarriak.
- Obra definitiboak garatzeko proposamen ezberdinak.
- Proiektu Pertsonalak.

- Etab.

## Irakaslea

- Prokulturako irakasle taldea

## Nori zuzendua

Helduak

## Ikasleak eraman beharreko materiala

Pertsona bakoitzak bere proiekturako beharrezkoa den material espezifiko eramango du. Aukeratutako teknikaren arabera pinturak: olio-pinturak, akrilikoak (gutxieneko koloreak: magenta, zian, horia, zuria eta beltza), pintzelak, zatarrak, bestelako materialak (kartoiak, hondarra), euskarria, kristalezko potoa eta paleta.